

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ HERNANI MENDIA

### Mendi kiroletako argazkiak, ikusgai

Mendizale Astea hirugarren egunean sartuko da gaur eta Donostiako Vasco de Camping Elkartek antolatzen duen nazioarteko argazkilaritza lehiaketako argazkiak proiektatuko dira. Mendi kiroletako argazki ospetsuenak ikusi daitezke, 19:30etatik aurrera, Biterin. ||

## ■ HERNANI MUS

### Hirugarren eguna, gaur Xalapartan

Elkartarteko Mus Txapelketa hirugarren egunean sartuko da gaur. Gaur Karobiko, Txantxangorriko, Gure Txokoko eta Ur-Miako bikoteak ariko dira lehian. ||

## ■ ARANO ERAKUSKETA

### 'Baratze kritikoa', asteburuan

Larunbatean eta igandean, Baratze Kritikoa erakusketa ikusi ahal izanen da Maisuenean. Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatu da eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara ikusi daiteke eta igandean, azken egunean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ||

## ■ HERNANI BEHOBIA

### Autobuserako, azken eguna

Igandean egingo da Behobia-Donostia lasterketa, eta atletismo elkartek autobusa jarriko du Behobiarako. Izena emateko azken eguna gaur da, pista ondoko bulegoan, 19:00etatik 20:00etara. ||

## ■ HERNANI LITERATURA

### 'Amek ez dute', 2garren solasaldian

Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik aztertzen ari dira udal liburutegian Kattalin Minerrekin. Datorren asteartean, azaroak 12, izango da, 19:00etan, bigarren saioa eta bertan Katixa Agirrerren Amek ez dute liburuz ariko dira solasaldian. ||

## ■ HERNANI HITZALDIA

# Berdeak kanpotik, ilunak barrendik

Elektrizitate-enpresa espainiarren eragina Mexikon eta Guatemalan aztertuko dute gaur, 19:00etan, Biterin. «Megaproiektuekin ez dituzte emakumea, natura eta herri indigenak errespetatzen».

MUGEN Gaietik, Txiapasen Alde eta Lumaltik elkarrekin hitzaldia eskainiko dute gaur, arratsaldeko 19:00etan Biterin. Claudia Vázquez mexikarra, Mario Minera guatemaldarra, eta Goienerreko ordezkari bat izango dira hizlari, eta ariko dira elektrizitate-enpresa espainiarrek (Iberdrola, Acciona, Naturgy,...) duten eraginaz, Mexikon eta Guatemalan.

«Hainbat urte daramatzate Mexikon eta Guatemalan megaproiektuak eraikitzen, natura, herri indigenak eta emakumeak errespetatu gabe. Euren helburu bakarra dirua irabaztea da, kosta ahala kosta, baina euren publizitatean saltzen diguten irudia da ingurumena errespetatzen duten enpresak direla, eta beren burua enpresa 'berdetzat' jotzen dute» diote elkarrekin. ||



Iberdrola eta Guatemalaren arteko desadostasunengatik epalketak egon dira.

## ■ HERNANI UDALA ENERGIA

# «10.000 eurotik gora aurreztea aurreikusten da»

Eraikin publikoetan argindarraren kontratuak egokituta lortuko du Udalak aurreztea.

ENERGIA Iraunkorrerako Udal Planaren barruan, Hernaniko Udalak eraikin publikoetako elektrizitate kontsumoari egiten zaion jarraipenak 10.000 eurotik gorako aurreztea ekarriko diola aurreikusi du Udalak. Egiten zaion jarraipen horrek, fakturazioak eta online kontsultak erreparatuta ondorioztatu da.

Azken urteotan udal zerbitzuen ordutegiak, erabiltzaile

kopurua edo instalatutako gailu eta instalazioen energia eraginkortasuna, adibidez, aldatzen joan dira. Azterketa jarraia eginda, kontratuak egunera daitezke, eta beharrezkoa baino gehiago ez ordaintzea lortu.

**Zenbait ekintza aurrezteko** Hernaniko Udalak zenbait ekintza egin izan ditu urteotan energia aurrezteko eta

faktura murrizteko, kaleko argiztapenari dagokionez zein udal eraikinetako azpiegituri eta kontsumoei dagokienez. Hala ere, Energiaren urteko txostenean -aurtengo apirilean argitaratua- oraindik hobetzeko tartea bazegoela ikusi zen, eta orain egin diren doiketa hauek bide horretan doaz.

Aldaketa horien artean aipagarria da ordutegi diskrimi-

nazioa ezartzearena, kontsumoaren zati nagusia merkeago den ordutegian egiten delako. Beste batzuetan, gehiegizko potentzia kontratatuta zegoela identifikatu da.

Denera, 150 argindar horniketa inguru ditu Hernaniko Udalak eta horietatik 20 baino gehiago egokitu dira. Aldaketei esker, urtean 10.000 eurotik gorako aurrezkia lortzea espero da. ||

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**GAUR** Tarteka zaparradak eta haizea bizi-bizi; arratsaldean ateruneak luzatuz joango dira. Mendebaldeko haizea tarteka zakartu egingo da, batez ere haizeguneetan. **Min.12° / Max.15°**

**BIHAR** Negu ibura hartuko du eguraldiak; zaparradak, haizea eta tenperatura beherago. Fronte berri batekin, zaparrada giroa nagusituko da. **Min.8° / Max.12°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI EH BILDU



Gorka Elejabarrieta, Senaturako Gipuzkoako hautagaia, Biterin.

### EH Bilduko zerrenda buruek mitina eman zuten Biterin

Mertxe Aizpurua eta Gorka Elejabarrieta Kongresurako eta Senaturako Gipuzkoako zerrendaburuek mitina eskaini zuten astelehenean Biterin. «Estatutik datozen injustiziei erantzuteko, euskal emakumeok ahots indartsua behar dugu Madrilen» esan zuen Aizpurua. Bestetik, Hernaniko EH Bilduk salatu du jarritako hauteskunde kartelak erasotuta eta ia panel guztietatik kenduak izan direla asteburuan. «Kontuan harturik ia auzo guztietan gertatu dela eraso hau, uste dugu asmo txarrez eta gure kanpaina kaltetzeko helburuarekin egina dagoela». ||

## HERNANI FELIX UGARTE

# Iturmendiko jentilzulora igandean egingo da bisita

Goizeko 11:00etan hasiko dira bisitak eta sarrera librea izango da. «Bertaratzen den guztia sartuko da kobazulora» antolatzaileen esanetan.

ITURMENDIKO jentilzulora bisitatzeko aukera aurten igande honetan, azaroaren 10ean, izango da hain zuzen. Urtero egiten da bisita 2013an aurreneko aldiz Felix Ugarte espeleologia elkarteak Iturmendiko kobazulora bisitatzeko aukera eman zuenetik.

Hernaniko kobazulorik lu-

zeena da, eta ordutik ia urtero izan da bisita gidatua. Txikia izaki, txandaka sartzeko aukera izaten dute bisitari kopuruaren arabera, eta barruan espeleologoak ematen ditu azalpenak.

Goizeko 11:00etan hasiko dira bisitak, eta jende guztia sartu arte izango dira bertan,

eguerdira arte, seguraski.

Sarrera librea izango da, eta bertaratzen den oro sartu ahal izango dela adierazi dute antolatzaileek. Felix Ugarteko kideek garbitu zuten 2013an txanpinoi industriarako erabiltzen zen kobazulora urte askotan. Orain, xaguxarrak ere agerti izan dira. ||

## HERNANI ERAKUSKETA

# Argazki Forumeko 14 kideren argazkiak ikusgai, gaurtik Biterin

Azaroaren 19ra arte egongo dira, astelehenean larunbatera, eta Hernaniko Argazki Forumeko kideen argazkiak dira dauden denak erakusketan.

HERNANIKO Argazki Forumeko 14 kideak erakusketa jarriko dute Biterin, hilaren 19ra arte. Gaur, 19:00ak aldera inaugurazio festa egingo da eta astelehenean larunbatera egongo da irekita argazki erakusketa.

Astelehenean ostiralera 10:00etatik 13:00etara egongo dira ikusgai goizez, erakusketa aretoan, eta 18:00etatik 21:00etara arratsaldean. Larunbatean goizez 10:00etatik 13:00etara egongo da irekia

erakusketa.

Hamalau argazkiak argazkilarik hauenak dira: Arkaitz, Cova, Mendi, Josune, Ana, Pedro, Iker, Esther, Agustín, Puri, Félix, J.M. Manso, Xabier eta Maria. ||

## HERNANI DOBERA

### Pintxopotea mintzapraktikakoekin

Dobera Euskara Elkarteak pintxopotea egingo du *Gure artean euskaraz* mintzapraktika egitasmoan parte hartzen dutenekin. Hitzordua Plaza Berrin jarri dute ostegunean, 18:45etan. ||

## EREÑOTZU OGI TAILERRA

### Gaur arte eman daiteke izena tailerrean

Ereñotzuko Udazken Kulturalaren barruan ogi tailerrak antolatzen dituzte ostiralean eta larunbatean. Bazkaria ere egongo da larunbatean eta izena emateko azken eguna gaur arte luzatu da Auzo Udalean bertan. Bazkaria baxe 15 euro balio du. Bi egunetan zehar ogia nola egin erakutsiko dute eta azalpen desberdinak emango dituzte. Ostiralean ogi tailerraren lehenengo saioa hasiko da, 17:00etan. Larunbatean ogi ekologikoa egiten ikasteko bigarren ikastaroa emango da Ur Mian. 08:00etan hasiko da eguerdiko 13:30ak arte. Ondoren egingo dira ogi dastaketa eta bazkaria. ||

## JASOTA BEZALA

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Lur berriak ereiten

Atzera begira jartzea besterik ez dago honainoko bidea luzea izan dela ohartzeko. Bide horretan gainera, ez da alperrik egindakorik, era guztietako ale bakoitzak ekarri gaitu hona eta aurrera begirako aukera oro da guzti horren ondorio. Abenduan, 13 urte beteko dira Kontrakantxa gaztetxea okupatu eta zabaldu zenetik eta urte guzti horien ondoren egindako lan guztia ospatu ahal izatea ez da gutxi. 2006ko abendutik gaur arte ehundaka gazteren lana, ekarpena, go-goa, ilusioa eta borondatea pilotzen da gaztetxe horren artean.

Euri dextente egin du ordutik, baina bada aldatzen ez den gauzik. Hasieratik oinarri izan dugun autogestioaren filosofiak ez du etenik izan, gure beharrak gure ekinbidez asetzea beharrezkoa zaigu zapaltzen gaituen sistemaren aurrean, eta gaztetxeak bizirik irautearen arrazoiak bat da. Era berean, harreman eredu berri baten eraikuntza dihardugu egunero, sal-eros-

ketan eta elkarren arteko zapalkuntzan oinarritutako harremanen gainetik elkartasunean eraikitako sareak osatuz. Dudarik ez da gauzak aldatzeko grin iraultzaileak pizturik dirauela eta bereziki gazteok pairatzen ditugun zapalkuntzen aurrean gaztetxeak gune aske bat izaten jarraitzen du, gure bizitzak nahi bezala antolatu ahal izateko ekarpena egiten, oinarrituko beharrak asetzeko baliabideak ematek aisialdia antolatzeraino.

Beraz, badugu zer ospatu. Urtetan egin dena lanaren ondorioz datozen urtetan lan egiten jarraitzeko aukera dugu. 13 urte beteko ditu Kontrakantxa eta hemendik pasa diren guztiei eskerrak eman beharrean gaude. Belaunaldi ezberdinen borroka tresna izateko gaitasuna izan du eta etorriko zaretenok ere zabalik dituzue ateak. Zabalik ditugu aurrera egiteko ateak. Jarrai dezagun lur berriak ereiten.

Nahikari Mateo Borrega  
Gazte Asanblada

## IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko.  
Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Vanessa Soodeen: Coaching-psikologia, psikoterapia-Gestalt, Mindfulness, bakarkako terapia, bikote-terapia... Deitu: 666 197 211 vsodeen@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)